

KSI BERRITZAILE Programa 2019

KSI Berritzaile 2019 Programan aurkeztutako eta onartutako proiektuen analisia eta aurreko edizioekiko alderaketa

Txostenaren lanketa:

Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Donostia, 2019ko urria.



AURKIBIDEA

1-Sarrera	3
2-Eskaerak eta onartutako proiektuak.....	3
2.1 Aurkeztutako eta onartutako proiektuak, 3 Ardatzen arabera.....	3
2.2 Berrikuntza eta Transferentzia Teknologikoarekin lotutako proiektuen analisia.....	5
2.3 Antolamendu Eredu eta Enpresa Egituraren Berrikuntzaren inguruko proiektuen analisia	9
2.4 Enpresen Finantza-Gaikuntzarekin lotutako proiektuen analisia.....	14
2.5 Aurkeztutako eta onartutako proiektuak, sektoreen arabera	17



1-Sarrera

2019 urtean, Kultur eta Sormen Industrien arloko enpresa eta entitateek Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen KSI Berritzaile programan parte hartzeko aukera eduki ahal izan dute, berriro. 2017 eta 2018ko aurreko edizioetan bezala, programaren helburua izan da proiektu berrientzako abagune espazioak sortzea eta garatzea, hiru ekintza Ardatzen inguruan: (1) Berrikuntza Teknologikoa, (2) Antolamendu Ereduren Berrikuntza eta (3) Enpresen Finantza-Gaikuntza.

2019ko programan guztira aurkeztu diren proiektuen inguruko datu nagusiak biltzen ditu dokumentu honek, baita dagokien analisiaren eta balorazioaren ondotik, onartuak izan diren horiei buruzkoak ere. Siadeco Ikerketa Elkartek landu du dokumentua, hiru Ardatzetako bakoitza kudeatzen duten enpresek emandako informaziotik abiatuta: Tecnalia / Vicomtech, Euskalit eta Elkargi.

Informazio guztia KSI Berritzaile web gunean topatu ahal izango da: www.ksiberritzaile.eus.

2-Eskaerak eta onartutako proiektuak

2.1 Aurkeztutako eta onartutako proiektuak, 3 Ardatzen arabera

KSI Berritzaile programaren 2019ko edizioan 103 proiektu aurkeztu dira guztira, eta horien %85,4 izan da onartua (88 proiektu). Alde horretatik, kontuan hartu behar da 1.Ardatza dela proiektuen hautaketa egiten duen bakarra. 2018an 91 proiektu aurkeztu ziren eta 78 onartu, beraz, 10 proiektu gehiago onartu dira 2019an. 2018ko datuak hobetu dira, beraz, baina ez dira lehen edizioko mailara iritsi: 2017an 135 proiektu aurkeztu ziren eta 104 onartu.

Ardatzen arabera, 1.Ardatzean 2018an baino 4 proiektu gutxiago onartu dira, eta 2017an baino 9 gutxiago (16 proiektu). 2. eta 3.Ardatzetan, berriz, 2018ko datuak hobetu dira 2019an. 57 proiektu 2.Ardatzean (2018an baino 4 gehiago; 2017an baino 3 gutxiago) eta 15 proiektu 3.Ardatzean (2018an baino 10 gehiago; 2017an baino 3 gutxiago). 2 eta 3 ardatzetan, beraz, 2018an behera egin eta gero, 2017ko kopuruetara hurbildu dira 2019ko datuak. Lehen ardatzean, aldiz, beheranzko joera mantendu da.

1. Taula: Aurkeztutako eta onartutako proiektuak, 3 Ardatzen arabera

	Aurkeztuak			Onartuak			Onartutakoen %		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019	2017	2018	2019
1.Ardatza: Berrikuntza eta Transferentzia Teknologikoa	56	33	28	25	20	16	44,6	60,6	57,1
2.Ardatza: Antolamendu Ereduaren eta Enpresa Egituraren Berrikuntza	61	53	60	61	53	57	100,0	100,0	100,0
3.Ardatza: Finantza-Gaikuntza	18	5	15	18	5	15	100,0	100,0	100,0
GUZTIRA	135	91	103	104	78	88	77,0	85,7	85,4


Iturria: KSI Berritzaille, 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

2.Ardatza izan da parte-hartzerik handiena erakarri duena, alde nabarmenarekin, proiektuen %64,7 bildu baitu. Kontuan hartu behar da, dena den, bi fase eta bi deialdi eduki dituela, eta ondorioz, entitate batzuek bi proiektu aurkeztu dituztela. 2018an eta 2017an ere 2.Ardatza izan zen nagusi, baina beste bien artean, diferentzia handiagoa izan zen. 2019an proiektu bakarreko aldea egon da 1.Ardatzaren eta 3.Ardatzaren artean.

2.Taula: Onartutako proiektuen kopurua, Ardatzen arabera

	2017		2018		2019	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
1.Ardatza: Berrikuntza eta Transferentzia Teknologikoa	25	24,0	20	25,6	16	18,1
2.Ardatza: Antolamendu Ereduaren eta Enpresa Egituraren Berrikuntza	61	58,7	53	68	57	64,7
3.Ardatza: Finantza-Gaikuntza	18	17,3	5	6,4	15	17
GUZTIRA	104	100,0	78	100,0	88	100,0

Iturria: KSI Berritzaille, 2018 eta 2019. Siadecok landua

1.Grafikoa: Onartutako proiektuen kopurua, urtez urte, Ardatzen arabera eta guztira

Iturria: KSI Berritzaile, 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

2.2 Berrikuntza eta Transferentzia Teknologikoarekin lotutako proiektuen analisia

28 proiektu aurkeztu dira guztira 2019an (deialdi bakarra dago), eta horietatik 16 izan dira onartuak (%57). Horrenbestez, 2018an baino 5 proiektu gutxiago aurkeztu dira (33 izan ziren 2018an), eta 4 gutxiago onartu (20 izan ziren). Lehen edizioan, 2017an, aldiz, 56 proiektu izan ziren aurkeztuak eta 25 onartuak. Beheranzko joera izan du ardatzak, beraz.

3.Taula: 1. Ardatza: Onartutako proiektuen eskatzaileak eta hautatutako modalitateak

		Onartutako proiektuen eskatzaileak
1. Ardatza (16)	1. Modalitatea (0) Probatu teknologia eta aztertu zure enpresan bideragarria izan daitekeen	
	2. Modalitatea (4) Ikertu teknologia eta zure mock-up/prototipoa definitu	K6 Gestión Cultural Scanbit G93 Telecomunicaciones S.L. MaldeOjo Optika Atelier
	3. Modalitatea (12) Garatu teknologia eta zure enpresan martxan jarri	Alcad Last Tour Concert Digital Mobiles Guajira Sicodélica Pausoka Dibulitooon Studio Sendatek ElektrArt, Innovación Cultural y Tecnológica S.L. Irantzu Lekue Medinabeitia Media Attack Group S.L. Ludus Tech S.L. Alegria Activity

Iturria: KSI Berritzaile 2019. Siadecok landua

1. Ardatzeko proiektuen artean, 2 sektorek egin dute gora, batez ere, 2018tik 2019ra: ikus-entzunezkoetan 3 gehiago izan dira aurkeztutako proiektuak, eta 2 gehiago onartutakoak (6 proiektu, guztien %37,5). 2017ko maila berreskuratu dute ikus-entzunezkoek, orduan ere 6 proiektu izan baitziren onartuak. Publizitatean eta marketinean 3 proiektu aurkeztu dira, 2018an bezala, baina horietatik 2 onartu dira (batere ez, 2018an; 4 proiektu 2017an).

Beharakada nabarmenena hizkuntzen industrian eman da, 2019an ez baita proiekturik aurkeztu (2018an 5 izan ziren aurkeztuak eta 4 onartuak; 2017an 6 aurkeztuak eta 3 onartuak). Behera egin du, halaber, arte eszenikoaren sektoreak: proiektu bakarra aurkeztu da 2019an, eta ez da onartu (2018an 3 izan ziren aurkeztuak, eta 2 onartuak; 2017an 11 aurkeztuak eta bakarra onartua).


Hiru urteko bilakaera kontuan hartuta, ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen sektoreetan eman da parte hartzerik handiena, KSI Berritzaile programako 1. Ardatzean.

4. Taula: 1. Ardatza: aurkeztutako eta onartutako proiektuen kopurua, sektoreen arabera

Sektoreak	2017		2018		2019	
	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztuak	Onartuak
Arte Eszenikoak	11	1	3	2	1	0
Kultura Ondarea	2	1	1	1	2	1
Artisautza	0	0	0	0	0	0
Ikus-entzunezkoak	6	6	6	4	9	6
Eduki Digitalak	11	5	7	5	5	3
Arkitektura	0	0	1	1	0	0
Goi Gastronomia	0	0	0	0	0	0
Musika	2	1	2	2	3	2
Hizkuntzaren Industriak	6	3	5	4	0	0
Ikusizko Arteak	4	0	1	0	1	1
Argitalpenak eta Medio Inprimatuak	2	2	1	0	1	0
Bideojokoak	0	0	1	0	0	0
Diseinua	3	1	2	1	1	0
Moda (moda-osagarriak barne)	2	1	0	0	2	1
Publizitatea eta Marketina	7	4	3	0	3	2
GUZTIRA	56	25	33	20	28	16


Iturria: KSI Berritzaile 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

2.Grafikoa: 1.Ardatzean urtez urte aurkeztutako eta onartutako proiektuak



Iturria: KSI Berritzaile, 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

3.Grafikoa: 1.Ardatzean urtez urte onartu diren proiektuak, sektorearen arabera




Iturria: KSI Berritzaile, 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

Modalitatearen arabera bilakaera

KSI Berritzaileko 1. Ardatzari dagokionez, azaldu behar da 3 modalitateetan aurkezteko proiektuak. Garatu nahi den teknologia inplantatzeko etapa ezberdinak irudikatzen dituzte: bideragarritasuna aztertu; teknologia frogatu eta prototipoa definitu; eta teknologia garatu eta enpresan martxan jarri.

Azkena da merkatutik gertuen dagoen etapa, bestea, horretara iristeko alde aurreko faseak dira. Horregatik, 3. modalitateko enpresa kopurua mantendu izana datu baikorra dela esan daiteke. 1. modalitateko proiektuen beherakada ulertzeko, kontuan hartu behar da zenbat eta ideia garatuagoa izan, puntuazio altuagoa lortzen dutela proiektuek.

4. Grafikoa: 2017, 2018an eta 2019an 1. ardatzean onartutako proiektuak, modalitatearen arabera



Iturria: KSI Berritzaile 2019. Siadecok landua

Hala ta guztiz ere, proiektu kopuruaren murrizketa bat eman da, 2017tik 2018ra, eta batez ere, azken edizioan (2019). Ondorengoak dira murrizketa horren bi arrazoi nagusiak.

1. Eragileetako batek, kasu honetan Vicomtechek, proiektuak aurrera eramateko barne baliabideen arazo bat izan du, eta beraz, proiektu gutxiago hartu ditu bere gain.
2. Enpresa berrietara heltzeko zailtasunak daude, eta beraz, proiektu berriak identifikatzeko, 1. edo 2. modalitateetan. Horretarako, honakoak jarri dira martxan aurtengoan:
 - a. Gune bideratzaileekin, eskaerak aktibatze programak, emaitza desberdinekin.
 - b. Enpresen datu base berri bat joratu eta aurkezpen jardunaldi bat antolatu.

2020ari begira, enpresa berriak erakarri eta proiektu berriak identifikatzeko jarduerekin aurrera egitea da helburua.

2.3 Antolamendu Eredu eta Enpresa Egituraren Berrikuntzaren inguruko proiektuen analisisa

57 proiektu onartu dira 2019an. 2018an 53 proiektu onartu ziren eta 61 lehen edizioan, 2017an. Bi fase ditu ardatzak (kudeaketaren diagnostikoa eta prestakuntza ekintza edo aholkularitza babesa), eta bi deialdi egin dira (apirila-ekaina eta iraila-azaroa). Hortaz, entitate batzuek bi proiektu garatu ahal izan dituzte, lehen fasekoa bat eta bigarrenkoa bestea. 18 entitate dira, hain zuzen ere, bi proiektu garatu dituztenak. Beraz, 42 izan dira parte hartu duten entitateak.

Onartutako proiektu guztien %38,5 (22 proiektu) lehen fasekoa izan da (kudeaketaren diagnostikoa) eta %61,4 bigarrenkoa (35 proiektu). Bigarren fasean, proiektu gehienak aholkularitza laguntzakoak izan dira (20), 15 oinarrizko prestakuntza ekintzakoak eta 3 prestakuntza ekintza aurreratukoak.

5.Taula: 2.Ardatza: Lehen faserako onartutako proiektuen eskatzaileak

1.FASEA (22 proiektu)	Kudeaketaren diagnostikoa (22)	Onartutako proiektuen eskatzaileak
		A Fin de Cuentos Editorial S. L. Aerredesign (Pilar Andrés & Natalia Rotaeché, C.B.) Angelica Barco Studio Arista Diseño S.L.U. Asko Maite Zaitut S.L Baleike Kultur Elkarte Bilbao Formarte Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Bluedesign S.L. Devised Eider Corral Film Travel S.L. IG Karratu Arkitektura Karraskan La docena Last Tour Concerts Ludus Tech SL Muka Design Lab S.L. Sirope Agencia Creativa, SL Úbiqa.Tecnología, ideas y comunicaciónS.L. Uhina Matt S.L.U. Zergatik factory S.L.

Iturria: KSI Berritzaile 2019. Siadecok landua



2.FASEA (35 proiektu)	Prestakuntza ekintza oinarrizkoa (13)	Onartutako proiektuen eskatzaileak
		A fin de cuentos Aerredesign Angelica barco estudio ANT Espacio Asko maite zaitut Bilbao Formarte Euskaltzaleen Topagunea IG Karratu Arquitectura Karraskan La docena Panta Rhei Sirope Agencia Creativa Teatro Gorakada
	Prestakuntza ekintza aurreratua (3)	Bilboko Itsas Museum Panarama Zorraquino
	Aholkularitza laguntza (19)	Onartutako proiektuen eskatzaileak
	Gertuko Koop. Elkarte (Anboto) Kultiba Kooperatiba Elkarte Txikia Krealu Lucia Bonilla TMS Arquitectos Artgia Urolako Komunikazio Taldea Asociación Doos Colectivo Uhina Gestionet Last Tour Dr Minsky Ludus Tech Dramagia Teklak Eidabe Film Travel Muka Design Zergatik Grupo Xabide	

Iturria: KSI Berritzaile 2019. Siadecok landua



Azpirarratzekoa da diseinuaren sektorean antzematen den hazkundera, 14 proiektu onartu baitira 2019an 2.Ardatzean. 2018an 8 gutxiago izan ziren, 6 proiektu (7 proiektu lehen edizioan, 2017an). Modan 3 proiektu aurkeztu dira, 2018an baino 2 proiektu gehiago (2017an baino bat gehiago) eta arkitekturan 5, 2018an baino 2 proiektu gehiago eta 2017an baino 3 gehiago.


Beharakada nabarmenena Arte Eszenikoen sektorean ikusten da, 7 proiektuekin, 2018an 15 izan baitziren (2017an arrakasta handia eduki zuen programak sektorean, 29 proiektuekin). Argitalpenetan eta medio inprimatuetan 2018an baino 2 proiektu gutxiago aurkeztu dira, baina 2017an baino 3 gehiago.

6.Taula: 2.Ardatza: Aurkeztutako eta onartutako proiektuen kopurua, sektoreen arabera

Sektoreak	2017		2018		2019	
	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztuak	Onartuak
Arte Eszenikoak	29	29	15	15	7	7
Kultura Ondarea	3	3	3	3	3	3
Artisautza	3	3	2	2	0	0
Ikus-entzunezkoak	4	4	4	4	5	5
Eduki Digitalak	0	0	0	0	3	3
Arkitektura	2	2	3	3	5	5
Goi Gastronomia	0	0	0	0	0	0
Musika	3	3	3	3	2	2
Hizkuntzaren Industriak	1	1	2	2	1	1
Ikusizko Arteak	0	0	1	1	3	3
Argitalpenak eta Medio Inprimatuak	1	1	6	6	4	4
Bideojokoak	1	1	2	2	1	1
Diseinua	7	7	6	6	14	14
Moda	2	2	1	1	4	4
Publizitatea eta Marketina	5	5	5	5	5	5
GUZTIRA	61	61	53	53	57	57


Iturria: KSI Berritzaile, 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

5.Grafikoa: 2.Ardatzean urtez urte onartutako proiektuak



Iturria: KSI Berritzale 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

6.Grafikoa: 2.Ardatzean urtez urte onartu diren proiektuak, sektorearen arabera



Iturria: KSI Berritzale 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua



Modalitateen araberako bilakaera

Bigarren ardatzean, modalitateak aldatu egin dira KSI Berritzaileen hiru edizioetan zehar. 2017an diagnostikoa egiteko aukera egon zen soilik, bi modalitatetan (autodiagnostikoa edo bisitarekin egindako diagnostikoa). 2018ko edizioan, bi diagnostiko mota horiek mantendu egin ziren lehen fase gisa, baina bigarren fase bat ere eskaini zen, formakuntza (oinarrizkoa edo aurreratua) eta aholkularitza hautatzeko aukerarekin. 2019an, autodiagnostikoa egiteko aukera baztertu da (diagnostikoa + bisita modalitatea mantenduz), bigarren fasea bere horretan utziaz.


Datuen irakurketarako, nabarmendu behar da 2018an bi fase aurrera eramán zirela: diagnostikoari dagokiona lehena eta kudeaketaren hobekuntzara bideratua bigarrena (bi modalitate: prestakuntza-ekintza eta aholkularitza). 2017an diagnostikoa egin zuten entitateek bigarren fasean parte hartu zuten soilik. Berriek, aldiz, bi faseak egin zituzten. Gainera, bigarren fasean proiektuak bikoizteko abagunea egon zen, prestakuntza-ekintza oinarrizkoa eta aurreratua edo prestakuntza-ekintza eta aholkularitza hautatu ahal izan zirelarik.

Grafikoan irudikatuta daudenak bi faseetako modalitate bakoitzeko proiektuen kopuru totalak dira. Baina kontuan izan behar da entitate batzuek bi faseetan parte hartu zutela, eta gainera, bigarren fasean, batzuek bi proiektu aurrera eramán zituztela. Hori aintzat hartuta, 43 entitate izan ziren parte hartzaileak, guztira.

2019an ere bi fase izan dira eta entitate batzuek bi proiektu aurrera eramán dituzte, lehen fasekoa bat eta bigarren fasekoa bestea (18 izan dira). Hortaz, parte hartu duten entitateak 42 izan dira guztira. Nahiko pareko daude 2018ko eta 2019ko datuak. Azpimarratu behar da hainbat enpresak hiru edizioetan, edo bitan gutxienez, 2.ardatzean parte hartu duela. Enpresa horiek ibilbide oso bat egin dute, modalitate ezberdinak landuz.

Gainera, 1. fasea (Diagnostikoa), 2. fasea pasatzeko beharrezko pausua dela kontuan izanda (beraz enpresa berrien "harrobia" dela), 2019ko datuak hobetu egin direla esan daiteke, 22 diagnostikorekin (12 besterik ez, 2018an). Kasu honetan, nabarmendu behar da Euskalitek berak egiten dituen difusio eta erakartze lanak.

7.Grafikoa: 2017, 2018an eta 2019an 2.ardatzean onartutako proiektuak, modalitatearen arabera



Iturria: KSI Berritzaile 2019. Siadecok landua

2.4 Enpresen Finantza-Gaikuntzarekin lotutako proiektuen analisisa

15 proiektu aurkeztu dira guztira, KSI Berritzaile programaren 2019ko edizioan. 2018 urteko kopuruekin alderatuta, 10 proiektu gehiago izan dira 2019an. Hala ere, datua ez da 2017kora iristen, 18 izan baitziren.

7. Taula: 3.Ardatza: Onartutako proiektuen eskatzaileak

Entitateak (15)	Prestakuntza Programa Kudeaketa Ekonomiko-Finantzariora (8)	Onartutako proiektuen eskatzaileak Rock Izarra S.Coop. Mail Boxes Tokikom Uhina Matt S.L.U. Úbiqa. Tecnología, ideas y comunicación S.L. Film Travel Iván Gómez Gutiérrez Dr. Minsky
	Diagnostiko eta Laguntza Finantzarioaren Zerbitzua (7)	Onartutako proiektuen eskatzaileak Rock Izarra S.Coop. Mail Boxes Uhina Matt S.L.U. Úbiqa. Tecnología, ideas y comunicación S.L. Libros de Ruta Ediciones MYFmusic publications

Iturria: KSI Berritzaile 2019. Siadecok landua


Ikus-entzunezkoen sektorean eman da hazkunderik handiena, 4 proiektu aurkeztu baitira 2019an, eta bakarra ere ez zen izan 2018an (3 proiektu 2017an). Diseinuaren sektorean ere ez zen proiekturik aurkeztu 2018an, eta 2 izan dira 2019an. Musikaren sektorea mantendu egin da, 3 proiekturekin, 2017ko 2 proiektuen gainetik.

8.Taula: 3.Ardatza: Aurkeztutako eta onartutako proiektuen kopurua, sektoreen arabera

Sektoreak	2017		2018		2019	
	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztuak	Onartuak
Arte Eszenikoak	7	7	1	1	2	2
Kultura Ondarea	0	0	0	0	0	0
Artisautza	0	0	0	0	0	0
Ikus-entzunezkoak	3	3	0	0	4	4
Eduki Digitalak	0	0	0	0	0	0
Arkitektura	0	0	0	0	0	0
Goi Gastronomia	0	0	0	0	0	0
Musika	2	2	3	3	3	3
Hizkuntzaren Industriak	0	0	0	0	0	0
Ikusizko Arteak	2	2	0	0	1	1
Argitalpenak eta Medio Inprimatuak	1	1	0	0	2	2
Bideojokoak	0	0	0	0	0	0
Diseinua	1	1	0	0	3	3
Moda	0	0	0	0	0	0
Publizitatea eta Marketina	2	2	0	0	0	0
Zehaztu gabe	0	0	1	1	0	0
GUZTIRA	18	18	5	5	15	15


Iturria: KSI Berritzaile, 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

8.Grafikoa: 3.Ardatzean urtez urte onartutako proiektuak



Iturria: KSI Berritzaile, 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

9.Grafikoa: 3.Ardatzean urtez urte onartu diren proiektuak, sektorearen arabera




Iturria: KSI Berritzaile, 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

Modalitateen araberako bilakaera

3.ardatzeko modalitateei dagokienez, 2018an formakuntza soilik eskaini zen, 2017an bezala. 2019an, aldiz, beste modalitate bat eskaini da: diagnostiko pertsonalizatua. Aukera horrek beste enpresa batzuen beharrei erantzun diela dirudi, nabarmentzekoa baita 2018tik 2019ra proiektu kopuruan izan den hazkundera (formakuntza egin duten bost enpresak diagnostikoa ere egin dute).

Aurten martxan jarri denez zerbitzu berri hau, ez daukagu konparaketa egiteko modurik. Nolanahi ere, eta kontuan izanda 2018an egon zen beherakada nabarmena, 2019an 8 enpresa berri formakuntzan sartu izana eta 7k zerbitzu berria eskatu izana berri ona dela esan daiteke, kontuan izanda, ardatz honetan eskari maila nahiko baxua dela, eta KSletako enpresak erakartzea ez dela erreza.

10. Grafikoa: 2017, 2018an eta 2019an 3. ardatzean onartutako proiektuak, modalitatearen arabera



Iturria: KSI Berritzaile 2019. Siadecok landua

2.5 Aurkeztutako eta onartutako proiektuak, sektoreen arabera

2019an, 2018an eta 2017an aurkeztutako proiektuak dagokien sektorearen arabera konparatuta, bi sektoretan eman da hazkunde esanguratsua: diseinuan eta ikus-entzunezkoetan. 2018an baino 7 proiektu gehiago onartu dira ikus-entzunezkoetan, 2017an baino 2 gehiago. Diseinuan, 2018an baino 12 proiektu gehiago onartu dira, 2017an baino 10 gehiago.


Beharakada handiena, aldiz, arte eszenikoetan eman da. 2018an onartutako proiektuen erdia onartu da 2019an (18 proiektutik 9 proiektura). 2017an, 37 proiektu onartu ziren.

9.Taula: Aurkeztutako eta onartutako proiektuen kopuruak, sektoreen arabera

Sektoreak	2017		2018		2019	
	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztuak	Onartuak	Aurkeztuak	Onartuak
Arte Eszenikoak	47	37	19	18	10	9
Kultura Ondarea	5	4	4	4	5	4
Artisautza	3	3	2	2	0	0
Ikus-entzunezkoak	13	13	10	8	18	15
Eduki Digitalak	11	5	7	5	9	6
Arkitektura	2	2	4	4	5	5
Goi Gastronomia	0	0	0	0	0	0
Musika	7	6	8	8	8	7
Hizkuntzaren Industriak	7	4	7	6	1	1
Ikusizko Arteak	6	2	2	1	5	5
Argitalpenak eta Medio Inprimatuak	4	4	7	6	7	6
Bideojokoak	1	1	3	2	1	1
Diseinua	11	9	8	7	20	17
Moda	4	3	1	1	6	5
Publizitatea eta Marketina	14	11	8	5	8	7
Zehaztu gabe	0	0	1	1	0	0
GUZTIRA	134	104	91	78	103	88

Iturria: KSI Berritzaile 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

11.Grafikoa: 2017, 2018an eta 2019an onartutako proiektuen kopuruak, sektoreka



Iturria: KSI Berritzaile 2017, 2018 eta 2019. Siadecok landua

